

**ELKARREKIN
UROLA ERDIA ERALDATZEN
2022-2027**



Aurkibidea

1 PROZESUAREN PROZEDURA	4
1.1 Aurrekariak: hausnarketa estrategikoaren testuingurua	4
1.2 Xedea eta jarraitu diren irizpideak.....	4
1.3 Hausnarketa prozesuaren parte hartzea eta metodologia.....	4
2 EGINDAKO BIDEA ETA ABIAPUNTUA	6
2.1 Azken urteetako ibilbidea	6
2.2 Abiapuntua	15
3 DIAGNOSTIKO FASEA	16
3.1 AMIA	16
3.2 Eskualdeko erronka nagusiak.....	17
4 2022-2027 FORMULAZIO ESTRATEGIKOA	18
4.1 Etorkizuneko ikuspegia	18
4.2 Helburu estrategiko nagusiak	18
4.3 Ekintza planaren oinarritzko egitura.....	19
4.4 Helburu estrategikoak, lan lerroak eta ekintzak	20
5 PLANGINTZAREN HEDAPENA	29
5.1 Kudeatzeko eredua	29
5.2 Jarraipena, ebaluazioa, egokitzapena eta kontuak ematea	31

1 PROZESUAREN PROZEDURA

1.1 Aurrekariak: hausnarketa estrategikoaren testuingurua

“Elkarrekin Urola Erdia Eraldatzen 2022-27” deitura izan du Iraurgi Berritzenek –Urola Erdiko garapen eta berrikuntza agentziak– eskualdeko eragile sozioekonomikoekin lankidetzan bultzatu duen hausnarketa estrategikoak.

Hausnarketa estrategikoa garatzeko beharra Iraurgi Berritzenek dinamizatzen duen **eragile sarearen (IB Sarea** hemendik aurrera) baitan artikulatzen diren parte hartze guneetan hauteman da. Izan ere, eragile sarean artikulatzen diren eragile sozioekonomiko ezberdinek, eskualdearen etorkizuneko erronken inguruan hausnartzeko beharra adierazi zuten, bereziki bi ikuspuntutatik:

1. **Batetik, eskualde ikuspegi amankomun bat sortze bidean** lantzeko beharra hauteman zen. Tokiko ekonomiak elkarrekin hausnartu eta erronka kolektiboen aurrean proposamen partekatatu baten baitan lan egiteko aukera ematen da, honek, ondoren bakoitzaren errealitate indibidualean ere eragina izango duenaren sinismenetik. Egun eskualdean duen garrantzia balioan jarri eta eskualdeak eskaintzen dituen baliabideen inguruan hausnartu eta hobekuntzak identifikatu nahi izan dira.

2. Bestetik, aldiz, **Iraurgi Berritzeneen baitan egituratzen den lankidetzazko gobernantzak**, eragile sozioekonomiko ezberdinen artean erronka kolektiboen markoan **lankidetzarako lan aukerak** identifikatzeko aukera ematen du.

1.2 Xedea eta jarraitu diren irizpideak

Urola Erdiak aurrera begira dituen **erronka nagusiak identifikatu** eta datozen urteetan **eragile sozioekonomikoek lankidetzan** garatuko dituzten lan lerroak lehenestea izan da hausnarketa estrategikoaren xedea.

Beste modu batera esanda, eskualdearen garapen sozioekonomikoa jomuga, datozen urteetan eskualdeko eragile ezberdinek lankidetzan landuko dituzten lan lerroak lehenetsi eta 2022-27 epealdian erreferentziazkoa izango den bide-orria osatu nahi izan da.

Honek, **Urola Erdiaren ikuspegi estrategikoa jasotzeaz gain, eragile sozioekonomikoekin modu partekatuan zehaztu diren helburu estrategikoak, lan lerroak eta ekintzak** jasotzen ditu.

Hausnarketa prozesuaren garapenari dagokionean, ondoren aurkezten diren irizpideak jarraitu dira:

- Iraurgi Berritzeneen gobernantza eredian parte diren eragile

sozioekonomiko ezberdinen parte hartzea bermatu nahi izan da prozesuan zehar. Honetarako, IB Sarearen baitan egituratzen diren parte hartze gune ezberdinak erabili dira. Ondorioz, prozesu osoan zehar ospatu diren lan saio ezberdinetan, izaera nahiz eremu ezberdinetako eragileen ikuspuntuak bermatzeko ahalegina egin da.

- Behin bide-orria zehaztuta, bertan jasotzen diren helburu, lan lerro nahiz ekintzak Nazio Batuen Erakundeak argitaratutako “Agenda 2030 – Garapen Jasangarrirako Helburuak” plangintzarekin lerrokatu dira.

- Plangintzak jasotzen dituen helburu, lan lerro eta ekintzen garapen mailari jarraipena egiteko ebaluazio sistema diseinatu da. Ebaluazio sistemak, jarraipenaz arduratuko den lan taldea nahiz ebaluaziorako erabiliko den metodologia zehazten ditu.

1.3 Hausnarketa prozesuaren parte hartzea eta metodologia

Hausnarketa prozesua, eskualdeko eragile ezberdinen parte hartzean oinarritu da, eta, horretarako, IB Sarearen baitan egituratzen diren parte hartze gune ezberdinak erabili dira: besteak beste, eskualdeko udalak, enpresak, ekintzaileak, ikastetxeak, merkataritza elkarteak eta enplegu nahiz turismo eragile ezberdinak.

Hausnarketa estrategikoa 2021eko iraila eta 2022ko ekaina bitartean garatu da eta prozesua 3 fase nagusitan egituratu da: **Diagnostiko fasea, Formulazio estrategikoa eta Plangintza-aren hedapena.**

Diagnostiko fasea

Diagnostiko fasean, Urola Erdiak gaur egun bizi duen egoeraren azterketa egin da. Honetarako, eskualdeak azken urteetan izan duen bilakaera sozioekonomikoa aztertzeaz gain, inguruko erakundeen plangintza estrategikoak aztertu dira.

Era berean, eremu ezberdinetako eragileei zuzenduta sektorekako talde dinamikak eta adituekin elkarriketak egin dira. Lan saioetan, gaur egun sektoreak eta eskualdeak oro har bizi duen egoeraren inguruko eztabaidak sustatu dira, eta etorkizuneko erronkak izan dira hizpide.

Guztira, diagnosi fasean, 7 lan saio eta 12 elkarriketa egin dira. Guztira, 53 eragilek eta 91 pertsonak parte hartu dute.

Formulazio estrategikoa

Behin eskualdearen egungo argazkia osatuta, Formulazio estrategikoa fasean bi hausnarketa kolektibo egin dira. Dinamketan,

izaera nahiz eremu ezberdinetako eragileak nahastuta, talde ezberdinetan egin da lan.

Lan saio horietan, datozen urteetara begira eskualdeak dituen erronkak, helburuak eta lan ildoak identifikatu eta landu dira. Bi lan saioetan jasotako ekarpenak oinarri, 2022-27 epealdirako bide-orria izango dena adostu da.


Bigarren fase honetan ospatu diren bi lan saioetan, guztira, 80 pertsonen parte hartu dute eskualdeko 38 eragile ordezkatzuz.

Plangintzaren hedapena

Hirugarren eta azken fasea, Plangintzaren hedapena, zehaztutako bide-orria abian jartzeari dagokio. Hau, 2022ko udazkenean abiatuko da, eta hausnarketa estrategikoan lehenetsi diren lan ildoen nahiz ekintzen garapenez arduratuko diren lan taldeak jarriko dira abian.

Ondorioz, 2022-27 epealdian, eskualdeko eragile sozioekonomikoekin lankidetzan, 19 lan lerro eta 60 ekintza jarriko dira abian.

Hausnarketa prozesuan jarraitu diren oinarrizko faseak, metodologia eta emaitzak



2 EGINDAKO BIDEA ETA ABIAPUNTUA

2.1 Azken urteetako ibilbidea

Atal honetan, Urola Erdia eskualdeak –Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil eta Zestoa– azken urteetan izan duen bilakaera sozioekonomikoa jasotzen da.

Dokumentuan hainbat adierazle jasotzen dira 4 bloke nagusitan: Demografia eta Lan Indarra, Langabezia, Ehun Ekonomikoa eta Neurgailu Ekonomikoak

DEMOGRAFIA ETA LAN INDARRA

2021eko datuei erreparatuz gero, **Urola Erdiko biztanleriaren %83,9 Azkoitiko eta Azpeitiko udalerrietan kontzentratzen da. Populazioaren %11,8 Zestoa**n biltzen da. Aldiz, eskualdeko 3 udalerrri txikienen artean biztanleriaren %4,7 kontzentratzen da.

Urola Erdian **biztanleria hazi egin da 2007 eta 2021 bitartean**. 2021ean, eskualdean 32.008 biztanle zenbatu ziren, 2007an baino 2.304 biztanle gehiago; **%8,2ko hazkundera**. Epealdi berean, Gipuzkoako eta EAEko populazioa %4,5 eta %3,7 hazi da, hurrenez hurren.

Urola Erdian izan den **hazkunde naturala (jaiotza eta heriotzen arteko diferentzia) murrizta** izan da 2007 eta 2021 bitartean, batez ere, azken urteetan. Beraz, eskualdeko biztanlerian eman den **hazkundera migrazio mugimenduei** dagokio.


Eskualdean, 2007 eta 2021 bitartean, **biztanleria atzeritarra bikoiztu** egin da. 2007an 1.094 atzeritar zenbatu ziren eta 2021ean, aldiz, 2.729; **%149,5eko hazkundera**.

Demografia Adierazleak 2021

Lurralde	Mendekotasun adierazlea ((biz. <15 + biz. > 64) / biz. 15tik 64ra) x 100 2021	Zahartze adierazlea (biz. >64 / biz. orokorra) x 100 2021	Ordezkapen adierazlea (20-29 biz./55-64 biz) x 100 2021
UROLA ERDIA	58,69	20,4	71,57
GIPUZKOA	57,52	22,7	67,57
EAE	56,54	22,8	63,01


Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Iraurgi Berritzeneke egina.

Biztanleriaren banaketa Urola Erdian 2021



Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Iraurgi Berritzeneke egina.

Urola Erdiaren adin piramidea 2021



Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Iraurgi Berritzeneke egina.


Epe berean, Gipuzkoan eta EAEn %110 eta %85,8 hazi da biztanle atzerritarren kopurua.

Bestalde, eskualdeko adin piramideari erreparatuz gero, **nabarmenezkoa da biztanlerian eman den zahartzea**. Gaur egun, biztanleriaren gehiengoa 40 eta 65 urte bitartean kontzentratzen da, eta **datozen urteetan 65 urtetik gorako populazioa nabarmen haztea espero da**. Gipuzkoako eta EAeko adin piramideek antzeko egitura aurkezten dute.

Populazioan eman den zahartzeak nabarmen eragin du Urola Erdia, Gipuzkoa nahiz EAeko mendekotasun eta zahartze adierazleetan. **2021ean eskualdeko populazioaren %20,4ak 65 urte edo gehiago** ditu. Mendekotasun adierazleari dagokionean, **lan egiteko adinean dauden 10 biztanleko ia 6 biztanle daude lan egiteko adinetik kanpo**.


Aldiz ordezkapen adierazleari dagokionean, **eskualdean, 55 eta 64 urte artean dauden 10 biztanleko soilik 7 biztanle zenbatu dira 20 eta 29 urte bitartean**. Ondorioz, Urola Erdian belaunaldien artean desoreka nabarmena hauteman daiteke.

Biztanleriaren bilakaera Urola Erdian 2007-2021



Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Iraurgi Berritzeneke egina.

Biztanleria atzerritarren bilakaera Urola Erdian 2007-2021




Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Iraurgi Berritzeneke egina.

Biztanleria aktiboa adierazleak, lurralde baten 16 urte edo gehiago izan eta lanean ari den edo lan bila ari den biztanleriari egiten dio erreferentzia

2020an, Urola Erdian **15.768 biztanle aktibo** zenbatu ziren, **2010ean baino 1.205 pertsona gehiago**. 2010 eta 2020 bitartean gizonezko aktiboen zenbatekoa egonkor mantendu da eta **emakume aktiboen zenbatekoa, berriz, nabarmen hazi da** azken hamarkadan. 2020an, 2010ean baino 1.170 emakume gehiago zenbatu dira; **%19,7ko hazkundea**. Honi esker, gizonezko aktiboen eta emakume aktiboen arteko arrakala nabarmen txikitu da.

Biztanleria aktiboaren bilakaera Urola Erdian generoaren arabera 2010-2020



Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. Iraurgi Berritzenez egina. 2021eko datuak ez daude oraindik eskuragarri.

LANGABEZIAREN BILAKAERA


2007 eta 2013 bitartean Urola Erdian zenbatutako langabetu kopurua nabarmen hazi zen, erregistratutako kopurua hirukoizteraino.

Aldiz, **2013 eta 2021 bitartean, eskualdean erregistratutako langabetu kopurua nabarmen murriztu da**, 2020 urtea salbuespen. **2021 urtean, eskualdean 1295 langabetu** erregistratu ziren.

Urola Erdian, 2021ean eskualdeko **langabezia indizea %8,1ean** kokatu zen, Gipuzkoakoa baina puntu bat gutxiago. Era berean, **azpimarragarria da bi generoen artean erregistratu zen diferentzia**, izan ere, eskualdean **gizonezkoen langabezia indizea %6,6 izan zen, eta emakumezkoen kasuan %9,8**.

2021ean **eskualdeko langabetuen ezaugarriak** aztertuz gero, generoari dagokionean **%57 emakumezkoa zen eta %43 gizonezkoa**.

Langabetu kopuruaren bilakaera Urola Erdian 2007-2021




Iturria: Garapen Hiriko Behatokiaren datuak. Iraurgi Berritzenez egina

Adinari dagokionean, langabetuen %9ak 25 urte baino gutxiago ditu eta langabetuen %43ak berriz, 25 eta 45 urte artean ditu. **Azpitarragarria da, langabetuen %48a 45 urtetik gorakoak izatea.**

Langabetuen ikasketei dagokionean, **langabetuen %69k soilik oinarrizko ikasketak** ditu. Aldiz, langabetuen %20 eta %11k Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko ikasketak ditu hurrenez hurren.


Langabetuen jatorriari dagokionean, eskualdean zenbatutako **langabetuen %73ak estatuan du jatorria eta %27ak berriz atzerrian.**

Amaitzeko, langabetuen jatorrizko sektoreari dagokionean, **langabetuen %18ak industrian du jatorria, eta langabetuen %56ak, berriz, zerbitzuen sektorean.** Lehen sektorean eta eraikuntzan langabetuen %5ak du jatorria. Langabetuen %16ak aurrez lan esperientziarik ez du izan.



Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Iraurgi Berritzeneke egina

Langabetuen ezaugarriak Urola Erdian 2021



Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Iraurgi Berritzeneke egina


EHUN EKONOMIKOA

2008 eta 2013 bitartean Urola Erdian Gizarte Segurantzara afiliatutako lanpostuen kopurua nabarmen murriztu zen, batez ere, industria sektorean. 2014 eta 2021 bitartean, berriz, afiliazio kopurua nabarmen hazi da, batez ere, industriari eta zerbitzuen sektoreari esker.

Urola Erdian 2021ean zenbatutako afiliazioen %42 bideratzen da industria sektorera. Gipuzkoarekin eta EARekin alderatuta, nabarmentzekoa da industriari eskualdean duen pisua. Izan ere, **Gipuzkoan eta EAEn afiliazioen %21 eta %18 bideratzen dira industria sektorera.**


Zerbitzuen sektoreari dagokionean, Urola Erdian soilik afiliazioen %47 bideratzen da jardura honetara. Gipuzkoa eta EAEn zerbitzuen sektoreak afiliazioen %72 eta %75 bereganatzen ditu.

Afiliazio kopuruaren bilakaera Urola Erdian 2006-2021



Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Gizarte Segurantzaren urte amaierako (abendua) afiliazio datuak. Iraurgi Berritzeneke egina.

Afiliazioen banaketa sektore ekonomikoaren arabera 2021




Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Gizarte Segurantzaren urte amaierako (abendua) afiliazio datuak. Iraurgi Berritzeneke egina.

Industriaren sektoreari dagokionean, **eskualdean 7 jardue-
ra ekonomiko ezberdin** nabarmendu daitezke: **Elikagaien in-
dustria, Egurraren industria, Altzarien ekoizpena, Industria
kimikoa, Metalurgia, Produktu metalikoen ekoizpena, eta
Makineria nahiz ekipoen ekoizpena**. Azken bi jardue-
ra ekonomikoek, industria sektore-
ra bideratzen diren afiliazioen erdia
baino gehiago kontzentratzen dute.

Zerbitzuen sektoreari dagokionean, aldiz, **Handizkako eta
txikizkako merkataritza, Ostalaritza eta Jarduera profesio-
nal, zientifiko eta teknikoak** jarduerak sortzen duten enplegu
kopurua azpimarratu daiteke.


Urola Erdiko 2021eko afiliazio datuei erregimenaren arabera
errepertuz gero, **afiliazioen %76,7 erregimen orokorrera bi-
deratzen da**. Aldiz, afiliazioen %20,2ak autonomo izaera du.

Urola Erdian industria sektoreko afiliazioen banaketa
jardue-
ra ekonomiko nagusien arabera 2021




Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Gizarte Segurantzaren urte amaierako (abendua) afiliazio datuak. Iraurgi Berritzene-
k egina.

Urola Erdian zerbitzuen sektoreko afiliazioen banaketa
jardue-
ra ekonomiko nagusien arabera 2021



Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Gizarte Segurantzaren urte amaierako (abendua) afiliazio datuak. Iraurgi Berritzene-
k egina.

Urola Erdiko afiliazioen banaketa erregimen ekonomikoaren arabera 2021



Iturria: Garapen Hiri Behatokiko datuak. Gizarte Segurantzaren urte amaierako (abendua) afiliazio datuak. Iraurgi Berritzene-
k egina.

NEURGAILU EKONOMIKOAK

2008 eta 2012 bitartean Urola Erdiko BPG (Barne Produktu Gordina) per capita nabarmen murriztu zen, Urola Erdian %23,1eko jaitsiera. Epealdi horretan, eskualdean emandako jaitsiera Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino nabarmen handiagoa izan zen. Aldiz, 2012 eta 2019 bitartean nabarmen hazi zen eskualdeko BPG per capita eta Gipuzkoako mailatik gertu kokatu zen.


Urola Erdian Balio Erantsi Gordinaren (BEG) bilakaera sektorearen arabera dagokionez, **2008 eta 2012 bitartean nabarmen murriztu zen industria nahiz eraikuntza sektorearen ekarpena. 2012 eta 2019 bitartean, industria, eraikuntza nahiz zerbitzuen ekarpena nabarmen hazi zen.**

2019an, **industriari dagokio eskualdeko BEGaren %45a**, Gipuzkoan eta EAEn baino nabarmen gehiago. Era berean, eskualdean, zerbitzuen sektoreari %47ko ekarpena dagokio, Gipuzkoan eta EAEn baina nabarmen gutxiago.

Ikerketa eta Garapen neurgailuei dagokionean, gorabehera nabarmenak erregistratu dira azken urteetan Urola Erdian. **2010 eta 2014 bitartean, I+G jarduerara bideratutako barne gastua nabarmen jaitsi** zen eskualdean. 2014 eta 2020 bitartean, berriz, hazkunde nabarmena eman da eskualdean, 2008ko zifretara iritsiz.


Lanaldi osoan **I+G jardueretara bideratzen den pertsona kopuruan ere gorabehera nabarmenak erregistratu** dira. **2010 eta 2012 bitartean jaitsiera nabarmena** eman ondoren, **azpimarratzekoa da 2014 eta 2019 bitartean eman zen hazkundera**. 2020an, lanaldi osoan, eskualdean 405 pertsona zenbatu ziren I+G jardueretan.

BPG Per Capita bilakaera 2008-2019




Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. Iraurgi Berritzeneke egina. 2020 eta 2021eko datuak oraindik ez daude eskuragarri.

BEGaren bilakaera Urola Erdian sektore ekonomikoaren arabera 2008-2019 (Prezio arrunta milaka €tan)




Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. Iraurgi Berritzeneke egina. 2020 eta 2021eko datuak oraindik ez daude eskuragarri.

BEGaren banaketa sektore ekonomikoen arabera 2019
 (Prezio arrunta milaka €tan)




Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. Iraurgi Berritzenek egina.
 *BEG: Balio Erantsi Gordina. 2020 eta 2021eko datuak oraindik ez daude eskuragarri.

I+G barne gastuaren bilakaera milaka €tan Urola Erdian
 2008-2020




Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. Iraurgi Berritzenek egina. 2021eko datuak oraindik ez daude eskuragarri.

I+G barne gastuaren bilakaera 2008-2020 (2008=100)




I+G pertsona kopuruaren bilakaera lanaldi osoan Urola Erdian
 2008-2020



Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. Iraurgi Berritzenek egina. 2021eko datuak oraindik ez daude eskuragarri.

I+G pertsona kopuruaren bilakaera lanaldi osoan Urola Erdian
 2008-2020 (2008=100)




NEURGAILU EKONOMIKOAK

Familia errenta osoari dagokionean, azken hamarkadan gorabehera nabarmenak azpimarratu daitezke eskualdean, Gipuzkoan eta EAEn.

Dena den, **2019an Urola Erdiak, Gipuzkoak eta EAEk baino zertxobait errenta maila altuagoa** aurkezten du.

Bataz besteko familia errentaren bilakaera eurotan 2009-2019



Iturria: Eustat, Euskal Estatistika Erakundea. Iraurgi Berritzenek egina. 2020 eta 2021eko datuak oraindik ez daude eskuragarri.

*"Errenta Osoa" adierazleak, beregain hartzen ditu "lanaren errenta", "kapital higigarrien errenta", "kapital higiezinaren errenta", "jardueren errenta", "transferentziak", "eskura dagoen errenta".

** Urola Erdiko adierazlea estimatzeko beharrezko datuak eskuragarri ez daudenez, 6 udalerrien arteko bataz bestekoa egin da.

2.2 Abiapuntua

Behin Urola Erdiaren bilakaera sozioekonomikoa aztertuta, eskualdeak egun dituen ezaugarriak laburbiltzen dira jarraian aurkezten den taulan. Irudiak, lurraldearen ezaugarriak 4 irizpideren baitan antolatzen ditu: Gizartea, Ekonomia, Lurraldea eta Gobernantza.

Ondorioz, 2022 eta 2027 epealdirako bide-orria zehaztuko den hausnarketa estrategikoa zehar honakoa izan da abiapuntua:

- **Eskualdeko biztanleria %6,7 hazi da 2008 eta 2021 bitartean**, batez ere, biztanleria atzerritarrari esker. 2021ean, eskualdeko biztanleriaren %8,5ak jatorri atzerritzarra du (Gipuzkoan eta EAEn %8,3).
- Eskualdean, Gipuzkoan nahiz EAEn populazioa nabarmen zahartu da, adin piramideak irauliz. Urola Erdian, 2021ean, 5 herritarretatik 1ek 65 urte edo gehiago ditu. Datozen urteetan, adierazle hau handitzea aurreikusten da.
- Eskualdeko **langabetu kopurua** (1.228 langabetu 2022ko irailean Lanbideren arabera) nahiz indizea (%7,8), (Gipuzkoan %8,3 eta EAEn %10,4) nabarmen egin du behera.
- Eskualdean, **langabetuen laneratze prozesuak** errazten dituen **prestakuntza eta programen** eskaintza zabala.
- **Eskualde euskalduna**, nabarmentzekoa da euskararen ezagutza nahiz erabilpen maila.
- Eskualdeak **kirol nahiz kultur mugimendu handia** du, eta erreferentziatzko jarduerak ospatzen dira bertan.

- **Industria sektore lehiakorra eta dibertsifikatua** da, 2021 amaieran, eskualdeko enpleguaren %42,2 (**Gipuzkoan %21,7 eta EAEn %18,3**) sortuz, guztira, 5.414 afiliatu. 2019an, industriari dagokio eskualdeko **BEGaren (Balio Erantsi Gordina) %44,6a** (Gipuzkoa 28,3%, EAE 23,9%).
- **Zerbitzuen** sektoreak, 2019an, eskualdeko BEGaren %46,6ko ekarpena. 2021 amaieran 5.976 lanpostu zenbaitu ziren eskualdean, enpleguaren %46,7 (**Gipuzkoan %71,7, eta EAEn %74,8**).
- **Lehen sektoreak** eskualdeko enpleguaren %2 (Gipuzkoan %0,8 eta EAEn %0,9) sortzen du. Azpimarragarriak dira landa eremu zabalak eta elikadura industria.
- **Eraikuntzaren** eta obra zibilaren sektorean enpresa erreferenteak kokatzen dira eskualdean, eta **enpleguaren %9,1** sortzen du (Gipuzkoan eta EAEn %5,8).
- **Familia errenta** osoari dagokionez, eskualdea, **Gipuzkoaren eta EAEn gainera kokatzen da**. 2021ean Urola Erdiko familia errenta 49.586 eurokoa (Gipuzkoan 48.368€ eta EAEn 45.899€) da.

GIZARTEA



EKONOMIA



LURRALDEA



GOBERNANTZA



- Urola Erdia eskualdea, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil eta Zestoa udalerriek osatzen dute, **32.134 biztanle** 2021ean. Biztanleriaren %83,6 Azkoitia eta Azpeitian kontzentratzen da.
- Eskualdearen **egitura administratiboa ezberdina** da, tokiko zenbait erakunde eta zerbitzu publikoren arabera. Zenbait kasutan, eskualdea Urola Kosta eskualdearen baitan kokatzen da, eta beste zenbaitetan, berriz, Urola Erdian ez dira 6 udalerririk kokatzen.
- Eskualdeko herritarrek eskualdea **bizi kalitate handiko** lurralde moduan ikusten dute.
- Eskualdeak dituen **baliabide naturalek nahiz ondareak aisialdia eta turismo jardueretarako** baliabide erakargarriak eskaintzen ditu.

- Iraurgi Berritzenean eragileen arteko **lankidetzaren espazioak** eta baliabideak sortzeko ahalmena du, eta horrek izaera ezberdineko **eragileen elkarlana** ahalbideratzen du.
- Eskualdean, **lankidetzazko gobernantzan** oinarritutako Gunea, Mahai eta Sare egonkorra daude: Enpresa Gunea, Hezkuntza Gunea, Enplegu Gunea (UrolanPrest), Ekin-tzailtza Gunea, bazterkeria egoeran dauden kolektiboaren integrazioa lantzeko izaera anitzeko eragileen Urolan-Ekin Sarea, Merkataritza Gunea, edota Energia eta Turismo Mahaiak.

3



DIAGNOSTIKO FASEA

3.1 AMIA

Diagnostiko fasean egin diren azterketa sozioekonomikoak batetik, eta Urola Erdiko eragile sozioekonomikoekin egin diren arloz-arloko lan bilerak bestetik, oinarri hartuta **AMIA** landu da. Tresna horrek, eskualdeak egun bizi duen egoera irudikatzen du.

AMIAk, ideia nagusiak 4 irizpideren arabera sailkatzen ditu. Batetik, eskualdeak egun dituen indargune nahiz ahulguneak aztertu dira. Bestetik, berriz, epe ertain eta luzean, lurraldeak landu ditzazkeen aukerak nahiz mehatxuak jasotzen dira.

- Eskualdeko hausnarketa estrategikoaren emaitza eta ondorioak.
- Bilakaera demografikoak lan eta ekonomia arloan sortuko dituen aukerak: *Silver economy*, zaintza edo eta negozioen eskualdatzeak.
- Tokiko ekoizpena eta kontsumoari lotutako tendentziak nekazaritza eta elikadura sektorean sortuko dituen aukerak.
- Transitzio digitala industria eta merkataritza sektoreetan.
- Eraldaketa digitalak lan egiteko ereduetan, talentuaren kudeaketan eta kontziliazioa politiketan sortuko dituen aukera berriak.
- Ekonomia zirkularra, energia berriztagarriak edo kontsumo arduratsuen esparruan sortuko diren lan aukera berriak.
- Turismo arloaren potentziala negozio berrien sorrerarako.

- Eskualdearen posizionamendu ahula eta, inbertsio eta proiektu berritzaileak erakartzeko zailtasuna.
- Etorrinen zaugarritasun egoera eta integrazio falta.
- Desoreka demografikoa (biztanleriaren zahartzea).
- Merkataritza, zerbitzuak eta lehen sektoreko negozioen ondorengo eza.
- Kontsumoari lotutako gizarte ohituren bilakaera.
- Talentua mantendu eta erakartzeko zailtasunak.
- Industria lanpostuak betetzeko beharrezkoak diren eza-gutza eta gaitasun falta lan merkatuan.
- Industria sektorearen erakargarritasunaren gutxitzea irtenbide profesionalaren ikuspegitik.

AUKERAK



MEHATXUAK



INDARGUNEAK



AHULEZIAK



- Lankidetzazko Gobernanatzen oinarritutako kudeaketa ereduak.
- Bizi kalitate mailaren gaineko pertzepzio altua biztanleriaren aldetik.
- Industria sektore sendoa eta lehiakorra.
- Landa eremu nekazaritza eta elikadura industriari lotutako jarduera sendoak.
- Bazterkeria egoeran dauden kolektiboen integrazioarako lanean diharduen UrolanEkin Sarea.
- Eskualdeko eragile sozioekonomikoaren eta Izarraitz Lanbide Heziketaren arteko harreman egonkorra.
- Izarraitz Lanbide Heziketaren eskaintzaren hazkundea.
- Euskararen presentzia eta erabilera; eskualde euskalduna.
- Naturan eta aire librean burutzeko jarduera eskaintza anitza eta zabala.
- Dinamismo handia kirol eta kultur ekitaldien eta jardueren ikuspuntutik.

- Eskualdeak, egitura administratibo eta identitate ahula.
- Mugikortasun azpiegituren egoera kaskarra.
- Goi mailako ikasketen eskaintza murrizta.
- Osasun arloko azpiegitura eta eskaintza mugatua.
- Genero arrakal, industria sektoreko enpleguan bereziki.
- Profil kualifikatuen falta industrian, zerbitzu aurreratuetan, eta eraikuntzan bereziki.
- Industriagune zaharkituak eta hornidura (energia eta telekomunikazio sareak) arazoak.
- Kontsumo ohitura eta digitalizazioaren aurrean, egokitzeko zailtasunak merkataritza sektorean.
- Zaintza sektorean profesional eskasia eta horien profesionalizazio maila baxua.

3.2 Eskualdeko erronka nagusiak

Diagnostiko fasean Urola Erdiko eragile sozioekonomikoekin arloz-arlo egin diren lan bileretan nahiz elkarrizketetan eskualdeak epe ertain-luzean izango dituen erronkak identifikatu dira. Nahiz eta egun ziurgabetasun egoera nabarmena izan,

izaera eta eremu ezberdineko eragile sozioekonomikoekin hainbat erronka lehenetsi dira.

Identifikatu diren erronkak, honako bost eremuetan egituratu dira:

1. ERRONKA. ESKUALDEA EGIN

Lehentasunezkoa ikusi da gaur egun eskualdeko ehun sozioekonomikoak duen egitura nahiz izaera definitu eta sendotzea. Horretarako, udalerrri ezberdinen artikulazioan lan egitea ezinbestekoa hauteman da.

- Nola landu **eskualdearen identitatea** eta **eraketa instituzional indartsu** bat eskualdearen aldarrikapenak bultzatzeko?
- Nola landu **eskualdearen erakargarritasuna jarduera ekonomiko ezberdinentzat eta, bereziki, industriarentzat** sortzen den aberastasuna bertan gera dadin?
- Nola landu **eskualdearen erakargarritasuna herritarrentzako**?

2. ERRONKA. POSIZIONAMENDUA HOBETU

Eskualdeak, inbertsioa eta proiektu berritzaileak sortu nahiz erakartzeko duen posizionamendua indartzeko beharra hauteman da. Urola Erdiko ehun sozioekonomikoak duen lehiakortasunari eutsi, nahiz etorkizuneko aukerak lantzeko ezinbestekoa ikusi da eskualdera inbertsioak nahiz proiektu berritzaileak erakartzea.

- Nola landu **eskualdeak Gipuzkoan eta EAEn duen posizionamendua hiriguneetan ematen ari den inbertsio estrategikoen egungo kontzentrazio egoeran**?
- Nola landu **eskualdeak eskaintzen dituen mugikortasun aukerak garraio publikoari nahiz errepide sareari dagokionean**?
- Nola landu eskualdeko jarduera ekonomikoek **gaur egun eta etorkizunean izango dituzten azpiegitura beharrak**?

4. ERRONKA. TRANTSIZIO BERDEA ERRAZTU

Aldaketa klimatikoari aurre egin asmoz, eskualdean trantsizio berdea bizkortzeko beharra ikusi da. Bestalde, eskualdeko ehun sozioekonomikoak eskaintzen dituen aukera berriak lantzea ezinbesteko ikusi da.

- Nola **bultzatu tokiko ekoizpena nahiz kontsumoa** eskualdean?
- Nola **aurre egin aldaketa klimatikoari eta horrek dakartzan ondorioei**?
- Nola **bultzatu** ehun sozioekonomiko **eraginkor, jasangarri eta berdeago** bat?
- Nola **identifikatu** **negozio aukera berriak** trantsizio berdearen inguruan?

3. ERRONKA. EHUN SOZIOEKONOMIKOAREN LEHIAKORTASUNEAN ERAGIN

Urola Erdiak egun duen ehun sozioekonomiko dibertsifikatuaren lehiakortasuna indartu, nahiz kalitatezko lanpostuen sorrera sustatzea premiazkoa ikusi da. Era berean, eskualdeko ehunak behar dituen gaitasun eta ezagutza beharrak identifikatu eta horien garapenean lan egiteko beharra hauteman da.

- Nola eragin **industria enpresen lehiakortasunean** eta mantendu egun sektore honek eskualdean duen garrantzia?
- Nola **eragin eskualdean dauden bestelako jarduera ekonomikoaren lehiakortasunean** eta berrikuntzan?
- Nola **egituratu eskualdeko turismo eskaintza eta baliolan jarri**?
- Nola erakarri talentua, **eskualdean beharrezkoak diren eta egun ez dauden ezagutza eta gaitasunak**?

5. ERRONKA. ENPLEGU DUINA ETA KALITATEZKOA BERMATU

Eskualdean enplegu duina eta kalitatezkoaren sorreran nahiz langabetuen lan munduratzearan lan egitea lehentasunezkoa ikusi da.

- Nola lortu **eskualdea eta inguruko unibertsitatearen artean harremanak indartzea**?
- Nola erraztu behar dugu **bazterkeria egoeran dauden pertsonen laneratze duina**?
- Nola **bermatu** eskualdean laneratze aukera parekideak?
- Nola **bermatu zaintza sektorearen profesionalizazioa eta lan duina**?

4



2022-2027 FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

4.1 Etorkizuneko ikuspegia

Hausnarketa prozesuan zehar, eskualdearen erronka, lan lerro nahiz ekintza nagusiak identifikatzeaz gain, etorkizuneko eskualdeak izan beharreko ezaugarrien inguruan hausnartu da, 2022-27 epealdirako honako ikuspegia osatuz:

“Urola Erdiko eragile sozioekonomikoen artean lankidetzazko gobernantzaren bidez, garapen iraunkorra eta herritarren ongizate inklusiboa xede izango dituen eskualde eraldatzailea izatea”

Ikuspegiak, bere baitan 4 ezaugarri nagusi ditu. Jarraian aurkezten dira horiek xehetasun gehiagoz:

- **Lankidetzazko gobernantza** terminoak, helburu amankomunak erdiesteko xedez, izaera nahiz eremu ezberdineko eragileen parte hartzea, eta lankidetzazko bermatzen dituen egitura antolatuari egiten dio erreferentzia. Gaur egun, Iraurgi Berritzen, Urola Erdiko Garapen eta Berrikuntza Agentziak dinamizatzen duen **lankidetzazko publiko-pribatuari** nahiz bere baitan egituratzen diren **partaidetza gune**ei egiten die erreferentzia.

- **Garapen iraunkorra**, gaur egungo beharrezkoak asetzera datorren garapenari dagokio, betiere, etorkizuneko belarrialdiek izango dituzten beharrezkoak asetzeko ahalmena konprometitu gabe. Terminoak, bere baitan, **3 dimentsio hartzen ditu aintzat: ekonomikoa, soziala eta ingurugiroa.**

- **Ongizate Inklusiboa** atributoak, berriz, gizartea eta bera osatzen duten herritar ororen beharrezkoak modu integratuean asetzeari dagokio. Horretarako **komunitateko eragile ezberdinak lankidetzazko arituz eta lurralderako nahi den etorkizuna** landuz.

- **Eraldatzailea** atributoak, eskualdea eta bera osatzen duten eragile sozioekonomikoen arteko lankidetzazko esperimentazioa eta izaera berritzailea izateaz gain **tokiko garapenean ekarpena egiteko nahiari** egiten dio erreferentzia.

4.2 Helburu estrategiko nagusiak

Aurreko atalean aurkeztu diren erronka nagusiei aurre egin ahal izateko, 2022-27 epealdian landuko diren 6 helburu estrategiko (HE) definitu dira.

1. HE: Eskualde egitura-izaera eta eragileen arteko lankidetzazko sistema indartu

Eskualdeko udalerriekin lankidetzazko eskualde egitura eta izaera landu nahi dira. Era berean, eskualdeko eragile sozioekonomiko ezberdinen artean, lankidetzazko sistema indartu nahi da.

2. HE: Azpiegitura sistema hobetu

Eskualdeak egun dituen azpiegitura beharrezkoak identifikatu eta hauek asetzeko irtenbideak landu, besteak beste mugikortasun arloari dagozkionak.

3. HE: Jarduera ekonomikoa, babestu, sortu eta eraberritu

Eskualdeko ehun sozioekonomikoak egun dituen beharrezko erantzuna eman eta jarduera ekonomikokoaren garapena eta berrikuntza sustatu.

4. HE: Hezkuntza-prestakuntza sistema indartu

Eskualdeko hezkuntza nahiz prestakuntza eskaintza egungo beharrezkoak egokitu, eta inguruko unibertsitateekin egon daitezkeen lankidetzazko aukerak landu.

5. HE: Trantsizio ekologikoa bultzatu

Eskualdeko ehun sozioekonomikoak trantsizio ekologikoaren beharrezkoak sentsibilizatu nahiz alor honetan egon daitezkeen aukerak berriak identifikatu eta garatu.

6 HE: Enplegu duin eta kalitatezkoaren oinarriak sendotzen jarraitu


Eskualdeko herritarrek enplegu duin eta kalitatezkoak izan dezaten bitartekoak landu.

4.3 Ekintza planaren oinarrizko egitura

Jarraian, plangintza estrategikoaren oinarrizko egitura aurkezten da, “3.2 Eskualdeko erronka nagusiak” atalean azaldu diren erronkei erantzuteko adostu diren ikuspegia, helburu estrategikoak eta lan lerroak.

IKUSPEGIA:



“Urola Erdiko eragile sozioekonomikoen artean lankidetzazko gobernantzaren bidez, garapen iraunkorra eta herritarren ongizate inklusiboa xede izango dituen eskualde eraldatzailea izatea”










4.4 Helburu estrategikoak, lan lerroak eta ekintzak








Ondoren, datozen bost urteetarako Ekintza Planaren garapena aurkezten da.

Prozesuan zehar atera diren ideia eraldatzaile posibleak duten dimentsioa eta eragina dela eta, Ideia Eraldatzaile (IE) moduan sailkatu dira, dagokion lanketa bereiztua egiteko.

Helburu estrategikoak	Lan lerroak	Ekintzak	Abiatze data	Epe Muga	Ardura	GJH	
1.HE. ESKUALDE EGITURA / IZAERA ETA ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA INDARTU	1.LL. ESKUALDE IZAERA	Urola Erdiko udalerrien arteko kohesioa landu, eskualde izaera eta honen garapen sozioekonomikoa oinarri izango dituen ikuspegi amankomuna sortuz.	1.1.E. Eskualdeko udalen arteko lankidetzaz indartzeko eskualdeko udal gobernuen lan taldea egituratu.	2022	2023	Tokiko Garapen Gunea	
	2.LL . ESKUALDEAREN POSIZIONAMENDUA	Urola Erdia eskualdearen identitatea eraiki, honek egun Gipuzkoa nahiz EAE mailan inbertsioak erakartzeko duen posizionamendua indartuz.	2.1.E. Eskualdearen identitatea indartuko duen marka irudiaren sorrera landuko duen lan taldea osatu eta horren bideragarritasuna aztertu.	2023	2024	IB Sareko kudeaketa Kontseilua	
	3.LL. LANKIDETZA SAREA	Urola Erdian berrikuntza testuinguruak bultzatzea xede, eskualdeko eragile sozioekonomiko ezberdinen arteko lankidetzaz dinamika indartu.	3.1.E. Eskualdeko eragile sozioekonomiko ezberdinen lankidetzaz artikulatzen duen eragile sarearen azterketa eta egokitzapena.	2022	2023	IB Sareko kudeaketa Kontseilua	
2.HE. AZPIEGITUREN SISTEMA HOBETU	4.LL. MUGIKORTASUNA	Eskualdeko herritar nahiz eragile soziokonomiko ezberdinek eskura duten mugikortasun sarea hobetzea.	4.1.E. Urola Erdiko errepide sareak, eskualde ikuspegitik behar dituen egokitzapenak nahiz hobekuntzak aztertuko dituen batzordea osatu.	2023	2023	Tokiko Garapen Gunea	
		4.2.E. Eskualde barneko udalerrien arteko mugikortasuna garraio publikoaren bidez hobetzeko aukerak aztertu.	2023	2024	Tokiko Garapen Gunea		








Helburu estrategikoak	Lan lerroak	Ekintzak	Abiatze data	EpeMuga	Ardura	GJH	
		4.3.E. Mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko aukera berriak aztertu eta abian jarri.	2023	2026	Energia Mahaia		
	5.LL. OSASUN ZERBITZUAK	Eskualdeko osasun zerbitzuen herritarren epe labur nahiz ertaineko beharren azterketa burutu eta horek asetzeko bitartekoak abian jartzea.	5.1.E. Egun, lehen arretan eskeintzen den zerbitzua hobetu eta osasun zerbitzuen eskaintza handitzeko lan egin.	2023	2024	Tokiko Garapen Gunea	
	6.LL. INDUSTRIA AZPIEGITURAK	Gaur egungo nahiz etorkizuneko jarduera ekonomikoek, industria kasu, garapenerako beharrezkoak dituzten azpiegitura ezberdinen egokitzapena eta garapena bermatzea.	6.1.E. Industriak epe ertain laburrean izango dituen beharrei aurre egiteko industria azpiegitura berrien sorrera aztertu.	2023	2025	Tokiko Garapen Gunea	
		6.2.E. Industriara bideratutako azpiegituren (industriaguneak) egokitzapena (internet, elektrizitatea, antolaketa...). Eraberritze beharrak aztertu eta exekuzio ekintza zehatzak diseinatu.	2023	2025	Tokiko Garapen Gunea		
3.HE. JARDUERA EKONOMIKOA BABESTU, SORTU ETA ERABERRITU	7.LL. INDUSTRIAREN LEHIAKORTASUNA	Urola Erdiko industria jardueraren lehiakortasunean eragin, lankidetzeta eta berrikuntza proiektu ezberdinen garapenaren bitartez.	7.1.E. Eskualdeko industriak egun talentua erein, mantendu eta erakartzeko dituen zailtasunei aurre egiteko aukera ezberdinak aztertuko dituen lan batzordea osatu.	2022	2023	Enpresa Gunea	
		7.2.E. Eskualdeko industria enpresetan ekintzailtza kultura sustatu eta negozio eredu berrien garapena errazteko bitartekoak jarri abian.	2023	2027	Enpresa Gunea		
		7.3.E. Erantzunkizun sozial, inklusibo eta gizartearekiko konpromisoa lantzeko ekintzak bideratu.	2022	2027	IB Sareko kudeaketa Kontseilua		

Helburu estrategikoak	Lan lerroak	Ekintzak	Abiatze data	Epe Muga	Ardura	GJH
		7.4.E. Teknologia berrien aztergune bat sortzeko proposamena lantzea.	2024	2025	IB Sareko kudeaketa Kontseilua	
		7.5.E. Eskualdeko industria enpresa ezberdinen artean identifikatzen diren esperientzia eta praktika onak partekatzea.	2022	2027	Enpresa Gunea	
8.LL. TURISMO ESTRATEGIA	Eskualdeko Turismo estrategia alineatu bertako eragile desberdinek eskaini ditzazketen ekarpenekin.	8.1.E. Turismo eragileen gobernantzazko lankidetzazko sustatuko duen Gunearen sorrera.	2022	2023	Turismo Gunea	
		8.2.E. Eskualdeko turismo eskaintza antolatu, eta indartuko duen plangintza espezifiko bat garatuko duen batzordea osatu.	2024	2024	Turismo Gunea	
		8.3.E. Eskualdeko eskaintza turistikoan euskararen presentzia bermatuko duen batzordea osatu.	2023	2023	Turismo Gunea	
		8.4.E. Turismo eskaintza indartuko duten jarduera ekonomiko berrien sorrera erraztuko duten bitartekoak jarri abian.	2024	2027	Turismo Gunea	
		8.5.E. Eskualdeko industria enpresak eta turismo eragileen arteko lankidetzazko aukerak landuko dituen batzordea sortu.	2023	2027	Turismo Gunea	
		8.6.E. Eskualdean kirol nahiz kultur arloko egitasmo ezberdinekin loturak sendotu eta aukera berriak identifikatu.	2023	2027	Turismo Gunea	
		8.7.E. Formakuntza jarraia bermatu turismo arloan.	2024	2027	Turismo Gunea	

Helburu estrategikoak	Lan lerroak	Ekintzak	Abiatze data	Epe Muga	Ardura	GJH
9.LL. MERKATARITZA ETA OSTALARITZAREN LEHIAKORTASUNA	Eskualdeko merkataritza eta ostalaritza zerbitzuen jarduera sustatu, establezimenduen eraldaketan eragin nahiz horien lehiakortasuna indartu.	9.1.E. Eskualdeko merkataritza eta ostalaritza establezimenduen digitalizazio arloan aurrerapausoak eman ditzaten bitartekoak garatzea.	2022	2027	Merkataritza Gunea	
		9.2.E. Merkataritza eta ostalaritza establezimenduen profesionalizazioa indartzeko prestakuntza eskaintza osatu.	2023	2027	Merkataritza Gunea	
10.LL. TOKIKO KONTSUMOA ETA ELIKAGAIEN EKOIZPENA	Eskualdean tokiko ekoizpena nahiz tokiko kontsumoa indartu.	10.1.E. Ostalaritzan, tokiko ekoizleen produktuak erabiltzera bideratutako ekintzak abian jarri.	2022	2027	Urkome	
		10.2.E. Eskualdeko nekazaritza eta eragile sozioekonomiko ezberdinen artean harremanak indartzeko aukera berriak aztertu.	2022	2027	Urkome	
		10.3.E. Tokiko azokak sustatzeko ekintza zehatzak landu eta horiekiko sentsibilizazioa landu, eta azoka lekuak eraberritzeko aukerak landu.	2022	2027	Urkome	
		10.4.E. Nekazaritza sektorearen profesionalizazioa landu.	2022	2027	Urkome	
		10.5.E. Eskualdeko elikagai katearekin lankidetzan, tokiko elikagaien ekoizpena indartzeko ekintzak abian jarri.	2022	2027	Urkome	







IE1. KM0 EKOIZPENA: Elikadura arloan, tokiko ekoizpena bultzatuko duen eskualdeko landa eremu jakin eta egituratu baten garapena. Besteak beste, tokiko ekoizle berrien garapenerako landa eremua eskaini nahiz inguruko elikadura industriarekin harremanak lantzeaz arduratuko den dinamika sortzea.

Helburu estrategikoak	Lan lerroak	Ekintzak	Abiatze data	Epe Muga	Ardura	GJH	
11.LL. EKINTZAILETZA ESTRATEGIA	Eskualdeko ekintzailletza estrategia alineatu, bertako eragile desberdinek eskaini ditzaketen aukerekin.	11.1.E. Eskualdeko ehun ekonomikoaren testuinguruan, jardura ekonomiko estrategikoetan ekimen berrien sustapena eta garapena errazteko ekintzak jarri abian.	2023	2027	Ekintzailletza Gunea		
		11.2.E. Ekintzailletza teknologikoa sustatzeko aukerak aztertu.	2023	2027	Ekintzailletza Gunea		
		11.3.E. Errentagarriak diren establezimenduen eskualdatze prozesuak sustatuko dituen neurriak abian jarri.	2022	2027	Ekintzailletza Gunea		
		11.4.E. Ekintzailletza kultura sustatu eta jarduerari ikusgarritasuna emateko inizatibak sortu.	2022	2027	Ekintzailletza Gunea		
		11.5.E. Ekintzailletza sustatzeko espazio berriak sortu.	2025	2027	Tokiko Garapen Gunea		
		11.6.E. Ekintzailletza eta elikagaien tokiko kontsumo eta ekoizpenarekin loturak indartu eta lehen sektorean jardura berriak sortu.	2022	2027	Ekintzailletza Gunea		
4.HE. ESKUALDEKO HEZKUNTZA-PRESTAKUNTZA SISTEMA INDARTU	12.LL. HEZKUNTZAREN ETENGABEKO EGOKITZAPENA	Etorkizunean gizarteak izango dituen erronkei erantzuna emango dien ikasleen heziketa beharrei erantzuna eman, hezkuntza eta eragile sozioekonomiko ezberdinen arteko harremanak eta elkarezagutzaren bitartez eta irakaskuntza metodologia berrien aplikazio bitartez.	12.1.E. Eskualdeko ikastetxeen orientazio planak aberastuko dituzten orientazio ekintzak garatu.	2022	2027	Hezkuntza Gunea	

Helburu estrategikoak	Lan lerroak	Ekintzak	Abiatze data	Epe Muga	Ardura	GJH
		12.2.E. Eskualdeko ikasleak emozioen kudeaketan trebatuko dituzten ekintza berriak landu.	2023	2027	Hezkuntza Gunea	
		12.3.E. Eskualdeko ikasleei sare sozialen arriskuak ekidin eta horien erabilera egokia sustatuko duten ekintzak bideratu.	2023	2027	Hezkuntza Gunea	
		12.4.E. Eskualdeko ikastetxeetan etorkinen eskolarizazioa erraztu ahal izateko, euskaran murgiltzeko ekimen ezberdinen bideragarritasuna aztertu.	2023	2027	Hezkuntza Gunea	
		12.5.E. Hezkuntza ikuspegitik genero ikuspegia kontuan izan eta bereziki landu.	2023	2027	Hezkuntza Gunea	
13.LL. PRESTAKUNTZA ESKAINTZA	Urola Erdiko prestakuntza aukera eskualde ikuspegitik landu, eskualdeko ehun sozioekonomikoaren behar errealelara egokituz, eta eskaintza berriaren sorrera aztertuz.	13.1.E. Eskualdeko lanbide heziketaren eskaintza indartu.	2022	2027	Izarraitz Lanbide Heziketa LHII	
		13.2.E. ILH eta enpresa/eragileen arteko harremanak indartzeko inizatibak landu.	2022	2027	Izarraitz Lanbide Heziketa LHII	
		13.3.E. Eskualdean jarduera ekonomiko ezberdinen baitan gako zein beharrezko diren profil zehatzak identifikatu eta prestakuntza eskaintza sortu.	2022	2027	Izarraitz Lanbide Heziketa LHII	
14.LL. UNIBERTSITATEAREN PRESENTZIA	Inguruko unibertsitateekin sare lana sustatu eta eskaintza eskualdera hedatzeko egon daitezkeen aukera ezberdinak aztertu.	14.1.E. Unibertsitateekin harremana landu, eta ikasleak inguruko enpresetara gerturatzeko egon daitezkeen aukerak aztertu.	2022	2027	UrolanPrest	

Helburu estrategikoak	Lan lerroak	Ekintzak	Abiatze data	Epe Muga	Ardura	GJH	
		14.2.E. Unibertsitateekin prestakuntza eskaintza eskualdera hedatzeko egon daitezken aukerak aztertu.	2023	2027	Tokiko Garapen Gunea		
IE2. UROLA ERDIA KANPUS: Eskualdean eskaintzen den goi mailako prestakuntza eskaintza garatu asmoz, inguruan kokatzen diren unibertsitateekin loturak landu eta formatu ezberdineko titulazioak eskualdera erakartzeko aukerak aztertu.							
15.LL. TALENTUAREN KUDEAKETA	Gaur egun eta etorkizunean eskualdeko ehun sozioekonomikoak beharko dituen gaitasun eta ezagutza beharrak identifikatu eta landu.	15.1.E. Eskualdean talentuaren inguruko estrategia lantzeko batzordea sortu.	2023	2027	IB Sareko kudeaketa Kontseilua		
		15.2.E. Eskualdean sortzen den talentua balioan jarri eta ezagutaraztera emango duten "beka" eta "sari sistema" ezberdinen garapena aztertu.	2023	2027	IB Sareko kudeaketa Kontseilua		
		15.3.E. Talentuaren inguruan enpresek egiten dituzten praktika onak ezagutuarazi eta ikusgarritasuna eman.	2023	2027	IB Sareko kudeaketa Kontseilua		
IE3. TALENTU ETXEA: Eskualdeko eragile sozioekonomiko ezberdinek egun eskualdean ez dagoen ezagutza eta gaitasunak eskualdera erakarri asmoz, hautagaiei epe jakin batetarako ostaturte zerbitzu integrala (bizitzeko lekua) eskainiko dien gune/espazioa sortzeko proiektua.							
5.HE. TRANTSIZIO EKOLOGIKOA BULTZATU	16.LL. EKONOMIA BERDEA	Beharraz sentsibilizatu eta alor honetan egon daitezken negozio aukera berrien azterketan lagundu.	16.1.E. Eskualdeko industria ehuna ekonomia zirkularraren inguruan sentsibilizatzeko espazioak sortu.	2022	2023	Enpresa Gunea	
		16.2.E. Adituekin negozio eredu desberdinen inguruan hausnartu eta aplikazio aukerak aztertu.	2022	2027	Enpresa Gunea		

Helburu estrategikoak	Lan lerroak	Ekintzak	Abiatze data	Epe Muga	Ardura	GJH
		16.3.E. Energia efizientzia eta energia berriztagarrien erabilpena sustatuko duten programa ezberdinak abian jarri.	2022	2027	Energia Mahaia	 
		16.4.E. Eskualdeko ehun ekonomikoan ingurumen azterna neurtu eta murrizteko ekintzak abian ipini.	2023	2027	Energia Mahaia	 







IE4. EKONOMIA ZIRKULARRA: Eskualdeko ehun ekonomikoan, eta industrian bereziki, ekonomia zirkularrak balio erantsi handiagoko produktu nahiz zerbitzuak eskaintzeko erreferentziatzko gunen sorrera landu.

**6.HE. ENPLEGU DUN
ETA KALITATEZKOAREN
OINARRIAK SENDOTZEN
JARRAITU**

**17.LL. KOLEKTIBO
ZAURGARRIEN
LANERATZEA**

**Laneratze duina erraztuko duten
jarduerak eta baliabideak eskaintzea.**

17.1.E. Etorकिन integrazioa eta kultur aniztasuna erraztuko duen harrera plana landu. Erreferentziatzko gunen bat sortu.	2022	2023	UrolanEkin	
17.2.E. Bazterkeria egoeran aurki daitezkeen herritarren laneratzea erraztuko duen prestakuntza-laneratze prozesua definitu eta sistematizatu.	2022	2027	UrolanEkin	
17.3.E. Zaintza sektorearen profesionalizazioa eta lan testuinguru duinak bermatzeko ekintzak abian jarri.	2022	2027	UrolanEkin	
17.4.E. Ekintza konkretuak diseinatu enplegu inklusiboaren inguruan kontzientzia sortu eta kolektibo desberdinen integrazioa bultzatzeko jarduera ekonomiko desberdinetan.	2022	2027	UrolanEkin	
17.5.E. Emakumeen prestakuntza eta laneratze prozesu egokituak sustatzera bideratutako ekintzak diseinatu.	2022	2027	UrolanEkin	

Helburu estrategikoak	Lan lerroak	Ekintzak	Abiatze data	Epe Muga	Ardura	GJH
18.LL. ALDAKETA DEMOGRAFIKOAK ETA KONTZILIAZIOA	Etorkizuneko erronka demografikoei -jaiotza indize baxua eta zahartze indize altua- erantzun egokia ematea ahalbidetuko duen kontziliazio politikak sustatzea.	18.1.E. Kontziliazioa eta erantzunkidetasunaren inguruko sentsibilizazioa eta hedapena sustatuko duen plana zehaztu.	2024	2025	IB Sareko kudeaketa Kontseilua	
19.LL. KALITATEZKO ENPLEGUA ETA LANERATZE AUKERA PAREKIDEA	Kalitatezko enpleguan oinarritutako garapen sozioekonomikoa sustatu eta generoen artean laneratze aukera parekidea bermatzea.	19.1.E. Kalitatezko enpleguan oinarritutako garapen sozioekonomikoaren ereduaren aldeko ingurunea eraikitzeko plan bat zehaztu.	2024	2024	IB Sareko kudeaketa Kontseilua	
		19.2.E. Emakumeen langabezia indize handiagoari eta emakumeek bereziki pairatzen duten enpleguaren prekarizazioari aurre eginez, kalitatezko enplegura sarbidea erraztuko dieten politikak abian jarri.	2024	2027	IB Sareko kudeaketa Kontseilua	
		19.3.E. berdintasun planen garapena eta aplikazioa erraztuko duten politikak abian jartzea.	2024	2027	IB Sareko kudeaketa Kontseilua	

5 | PLANGINTZAREN HEDAPENA

5.1 Kudeatzeko eredua

Hirugarren eta azken faseari dagokio **Plangintzaren hedapena fasea** eta 2022ko urrian abiatu da.

Fase honetan, **Formulazio estrategikoa** fasean landu den Plangintza estrategikoan jasotzen diren lan lerro nahiz ekintzen garapenaz arduratuko diren lan taldeak aktibatuko dira. 2022-27 epealdia bitartean, ekintza planean jasotzen diren ekintza guztiak abian jartzea aurreikusten da.

Ekintza planean bertan jasotzen dira ekintzen garapenaz arduratuko diren parte hartze gune eta eragileak, nahiz horien abiatze datak, epemuga eta garapen jasangarriko zein helbururi ekarpena egiten dion xehetasunez jasotzen da. Jarraian aurkeztu da aldagai hauen esanahia:

- **Arduraduna:** Ekintzaren garapenaz arduratuko den lan taldea zehazten du, eta bere garapenaren erantzukizuna hartzen du beregain.
- **Abiatze data-epemuga:** Ekintza abian jarriko den epea nahiz bere garapenerako epemuga zehazten dira.

- **Garapen jasangarriko helburuak (GJH):** Nazio Batuen 2030 Agendak zehazten dituen helburuei, ekintza planean jasotzen diren ekintzek egiten dieten ekarpena adierazten du.

- **Idazkaritza lanak:** nahiz eta plangintza estrategikoan ez den jasotzen, aurreikusi diren lan taldeen emate eta idazkaritza lanetan Iraurgi Berritzeneen lan talde teknikoa arituko da. Beharrezkoa den kasuetan, kanpo aholkularien erabilera aztertuko da.

Lan lerro nahiz ekintzen garapenaz arduratuko diren arduradunak kasuan-kasu aztertu den arren, esleipena egiterako orduan honako prozedura hau jarraitu da. Lehenik eta behin, IB Sarearen baitan egituratzen diren parte hartze guneek eskaintzen dituzten aukerak aztertu dira. Hala ere, lan lerro nahiz ekintza ezberdinen garapenerako, lan talde zehatzen sorrera beharrezkoa balitz, eremu bakar bateko eragileez osatuak edo eremu anitzeko eragileez osatuak izatea aurreikusten da.

Jarraian aurkeztu den taulak, IB Sarearen baitan artikulatzen diren lankidetzako espazio garrantzitsuenak aurkeztu dira:

PARTEHARTZE GUNEA	ERAGILEAK	DESKRIBAPENA
IB SARE KONTSEILUA	Iraurgi Berritzenean lanean diharduen 7 guneetako ordezkariak osatutako kontseilua; udalak, enpresak, hezkuntza, turismoa, ekintzailtza, merkataritza, enplegua.	Gune bakoitzeko ordezkari batek parte hartzen du. Eskualdeko garapen sozioekonomikorako proiektu estrategikoak erabaki eta garatzeaz arduratzen da, elkarlana eta estrategia konpartitu baten bitartez.
TOKIKO GARAPEN GUNEA	Azpeitiko eta Azkoitiko udal ordezkariak (alkateak eta ekonomia zinegotziek) osaturiko elkarlan gunea.	Eskualdearen sustapen sozioekonomikorako proiektu estrategikoak eta inguru berritzaileak sortzeko politika eta estrategiak garatzea.
ENPRESA GUNEA	Sektore eta tamaina desberdineko 12 enpresek ordezkariak orekatu batekin parte hartzen duten elkarlan gunea.	Enpresen lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatzeko, eskualdean garatu beharreko lankidetzak proiektuak erabaki eta kudeatzeko gunea.
TURISMO GUNEA	Turismo jardueran izaera desberdineko eragileak biltzen dituen gunea.	Eskualde ikuspegitik, turismo eragileek dituzten behar amankomunei erantzuteko elkarlan gunea.
MERKATARITZA GUNEA	Eskualdeko merkataritza elkarteak eta horien ordezkariak osatzen duten lankidetzak gunea.	Eskualdeko merkataritza jardueraren lehiakortasuna sustatzeko lankidetzak proiektuak lehenetsi eta garatzen diren gunea.
EKINTZAILTZA GUNEA	Ekintzailtza jardueraren inguruan izaera desberdineko eragileak osatzen duten elkarlan gunea.	Eskualdean ekintzailtza sustatzeko proiektu eta lan lehoak bultzatzea helburu duen elkarlan gunea.
HEZKUNTZA GUNEA	Eskualdean DBH eta Batxilergo mailan hezkuntza eskaintza duten 5 ikastetxeetako zuzendariak osatzen duten elkarlan gunea.	Hezkuntzak, gaur egun eta etorkizunean izango dituen erronkei aurre egiteko lankidetzak proiektuak erabakitzen diren gunea.
UROLANEKIN SAREA	Bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratu eta laneratzeko laguntza eta zerbitzuak eskaintzen dituen eragileen elkarlan sarea: eskualdeko udalak, prestakuntza-sistema eta gizarte esparruko eragileak sortutako sarea.	Bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratu eta laneratzeko asmoarekin, lankidetzak proiektuak lehenetsi eta garatzeko sarea.
UROLANPREST GUNEA	Eskualdeko udalak nahiz enplegu eta prestakuntza sistemako eragileak osatutako lankidetzak gunea.	Eskualdeko Enplegu-orientazio, lan prestakuntza eta bitartekaritza jardueren eragileen arteko lankidetzak proiektuak lehenetsi eta garatzeko gunea.
IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHII	Eskualdean Lanbide Heziketa mailako prestakuntza eskaintzen duen erreferentziarako zentroa.	Eskualdeak dituen prestakuntza beharrak identifikatu eta eragile desberdinekin lankidetzan bere eskaintza egokitzen duen zentroa.
URKOME	Landa garapenerako elkarteak, 11 udaletxe eta nekazaritzako elkarteak osatua.	Urola Kostako landa eremuen garapeneraren alde lan egiten duen elkarteak da.
ENERGIA MAHAIA	Eskualdeko udaletako ingurumen zinegotziek, teknikariak eta Urkomek osatutako lankidetzak mahaia.	Eskualde mailako energia ekintzak bultzatzeko eta koordinatzeko mahaia.

5.2 Jarraipena, ebaluazioa, egokitzapena eta kontuak ematea

Ekintza Plan honen jarraipena burutzeko oinarritzko tresna, proiektuen planifikaziorako erabili ohi izan den **aginte taula** izango da.

Bestetik, prozesua bera lankidetzaz eredu parte hartzaile batean oinarrituz egin den heinean, jarraipen teknika egiteko ere, eskualdeko eragile sozioekonomiko guztien ordezkaritza bermatuta egongo den eta egituraturako taldea izango da jarraipena egingo duena, hau da Iraurgi Berritzeneko Sare Kontseilua (IB Sare kontseilua) alegia.

IB Sare Kontseilua prozesuan parte hartu duten eragile sozioekonomiko guztien ordezkaritza jasotzen duen organoa da. Iraurgi Berritzeneko egituraren errota dago eta egun dituen zereginetatik haratago, beregain hartuko ditu hausnarketa estrategikoaren zaintza eta jarraipen lanak.

Bertako lan dinamika horrela izatea aurreikusten da:

- 2022-27 epealdirako zehaztu den ekintza plana oinarri hartuta, urtez urte landuko diren ekintzak lehenetsi eta urteko plana osatuko da. Honela, ekintza planaren jarraipena modu zehatzagoan egin ahalko da.
- **Lau hileko maiztasunez** bilduko da **planaren jarraipena** egiteko eta bilera horietan, ekintza nahiz adierazleetan aldatetarik balego, gaia aztertu eta behar diren neurriak hartuko dira.
- Bestalde, urtean behin, eskualdeko eragile ezberdinak bilduko dituen **Topaketak** izeneko ekitaldia egingo da. 2022-2027 epealdirako zehaztu den **ekintza planaren exekuzio maila azaltzeaz gain, eskualdeko dituen behar berrien inguruko hausnarketarako topagune gisa** erabiliko da.

